



3 UDALA

2017 urteko tasak onartu zituen Udalbatzarrak

Asteartean, ohiko Udalbatzarrak izan zen. Mahai gainean hainbat proposamen izan ziren, baina bi gai izan ziren nabarmendu zirenak. 2017 urteko ordenantza fiskalak onartu eta udal-tasak eta zergak %1,3 igoera izango dute. Bestalde, Ana Urchueguiaren aurkako kereilaren harira, alkateak Miguel Castells abokatuarekin izandako jarrera gaitzetsi zuen batzarrak.



4-5 BURUNTZALDEA Euskara kaletik etxera, herrietako ekimenak

'Eutsi euskarari', '100 da 100, 200 orduraz euskaraz' 'Irten Armairutik!' eta 'AndoainDARRA' ekimenak martxan jarri dituzte Buruntzaldeako herri ezberdinek. Ez dira euskararen erabilera sustatzeko ekintza soilak, herritarrek hizkuntza ohiturak aldatzeko onartu dituzten erronkak baizik. Euskara ama hizkuntza ez duten herritar ugari ere animatu da erronkari aurre egitera, Agustí Serres eta Jorge Gómez ditugu horren erakusle.

Laugarren urtez, baserrietako produktuek edo hauetatik deribatutakoek erakusleho ederra izango dute gure herrOian, Okendo plaza. Ekoizle anitzak izango dira eta Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi elkarteak ekintzak aurreko urteetako harrera izatea espero dute.

Lasarte-Oriako 4. Baserriko azoka aurkeztu zuten astelehenean. Agerraldian Jesus Zaballos alkatea, Beatriz Juez Sozioekonomia batzordeburua, Dioni Avila teknikaria eta Behemendi elkarteak kide Ainhoa Amundarain izan ziren. Lasarte-Oriako Alkateak Jesus Zaballosek gogoratu modura, hainbat ekintza antolatzen ditu Udalak Behemendi elkartearekin. Ekimenek duten harrera ona ikusirik, "Udalak egiten duen balorazioa ona da eta herritarrek ere ederki erantzuten dute", adierazi zuen alkateak. Baserriko produktuen azokaren laugarren edizioa egingo da aurten.

Ainhoa Amundarain Behemendiko arduradunaren hitzetan, larunbatean goizeko 10:00etatik 14:00etara izango da azoka Okendo plazan. Bertan "zortzi edo hamar karpa eta eremuko informazioa eskaintzen duen puntu turistiko bat" ikusi ahalko dituzte herritarrek.

Baina ez da guztia helduei zuzendua izango. Haurrentzako txoko bat ere izango da, "garai bateko jokoez, egurrez egindakoez" gozatuko dute etxeko txikiek.

Baserriko produktuak plazara

Larunbata goizean hamabi ekoizle izango dira Okendo plazan



Udal ordezkariak eta Behemendiko ordezkaria 4. Baserri azokaren aurkezpenean.

Ekoizleak

Behemendi elkarteko arduradunak azaldu moduan 12 ekoizleren garaiko produktuak ikusi, dastatu eta erosi ahalko dira plazan. Gainera, inguruko ekoizle asko izango direla azpimarratu zuen aurkezpenean.

Lasarte-Oriako bi postu izango dira, bata Oztarango Telleri baserriko kideak, "hauek baserrian dituzten garaiko barazki eta fruituak ekarriko dituzte"; eta, bestetik, hazi ekologikoak hazten dituen bikote bat.

Unnietan egindako ahalte produktuak, Hernanin ekoizten diren marmelada eta konfiturak, Aian artisau eran egindako gaztak, Errenterian Idiazabal jatorri-deitura duen gazta edo Tolosaldeko ardi gazta eta artisau-ogia eta esnekiak izango dira.

Berrikuntza modura, Irungo behi haragi produktuak ekarriko dituen postua nabarmendu zuen, "Pirinioetako eta Terreña arrazako behiak hazten dituzte. Orain Eskoziako



Telleri baserriko kideak aurten ere izango dira Baserri azokan.

ko arraza batekin ere hasi dira lanean. Haiek hil eta loteka saltzen dute haragia. Haragiarekin bestelako produktuak ere prestatzen dituzte, hala nola, haragi-bolak".

Sektorea kalera ekarri

Dioni Avila Sozioekonomia arloko teknikariak azaldu modura, "horrelako ekintzeekin herriaren dinamizazio sozioekonomikoa bilatzen dugu. Era berean, gure herrian gaur egun txikia den lehen sektorea kontuan izan

eta bertako produktuak herritarren eskura jartzen dira".

Giroa

Honetaz gain, Avilak eguraldia lagun goiz osoan zehar Udala Musika eskolako trikitilariak azoka girotuko eta alaituko dutela jakitera eman zuen.

Udalak eta Behemendi elkarteak aurreko urteetan azokak izan duen arrakasta errepikatzea espero dute eta horregatik, herritarrek animatzen dituzte Okendo plazara hurbildu eta produktuak erostera.

zerbitzu mistoak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

BIDAIAK TALDEAN

Abenduaren 3tik 8ra Lasarte-Oriatik

ISLANDIA AZKEN GELA	Aurora borealak	1.940€
- Hegaldiak Bilbotik eta lekualdatzeak barne - Urmael Urdina eta Secret Lagoon - Laguntza espainierazko gidarekin		
MUNICH AZKEN 4 GELAK	Gabonetako merkatuak	839€
- Hegaldiak Bilbotik - Aireportu-hotela-aireportu lekualdatzeak - Hofbrauhaus Jatetxean bertako afari Bavariarra		
GURUTZALDIA BETETA	Guadalquivir ibaian zehar	891€
- Hegaldiak Bilbotik eta barkura lekualdatzea barne - Txangoak aukeran (bulegoan galdetu): Sevilla, Cádiz, Jerez...		

Azken lekuak! NOAOA BIDAIAK GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

Nagusia 49, Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda

INQUIETUD

38-60 neurriak

Neure kabuz



Unai Muñoa

Ahobizi eta Belarriprest

Lehenik eta behin mila zorion euskararen maratonia gauzatzeko lanean jardun zareten guztioi, eta oraindik ere horretan jarraitzen duzuenoi. Bikaina izan da emozio guzti horien parte sentitzea, bai eta lasartearrok azken hamarkadatan eman ditugun aurrera pausoen lekuko izatea ere.

Zuen baimenarekin, Ahobizi eta Belarriprest kontzeptuak baliatu nahi ditut, azken aldi bueltara darabilzki-dan burutazioak plazaratzeko. Jakina da garai politiko nahasiak bizi ditugula, eta ez gurean bakarrik, mundu zabalean baizik. Azken albistea Donald Trump Estatu Batuetako presidente izendatu dutela izan da, Espainian Mariano Rajoy jauna gailendu den modu berean. Badi-rudi, Belarriprest gehiegik eta Ahobizi gutxiegik osatzen dugula gizartea. Edo-zer entzuteko eta onartzeko erraztasu-nak isilarazi egin gaitu. Nola liteke horrelako astakeriak esaten dituzten politikariei bozkatzera herritarren gehiengoak?

Euskal Herrian ere badira ulergaitzak zaizkidan hainbat gertakizun. Duela aste batzuk ETaren zulo bat antzeman omen zuten Frantzian. Desamea gauzatzeko behin eta berriz bide eman duen erakundearena, alegia. Duela egun gutxi, Mikel Irastorza atxilotu zuten, hain justu ere, ETaren su-etena bultzatu eta bideratu omen duen garaiko buruzagia. Hau da, estrategia armatua alde batera uzteko adreiluak jartzen ari zena. Nola liteke horrelako kontraesanen aurrean, ez sumatzea inolako erantzunik? Ez gure instituzioek, ez eta herritarrok ere, ez al diegu presiorik egin behar sufrimendua eta gatazka bizirik mantendu nahi dutenei? Ez al dugu behin betiko kapitulu hau ixteko eskubiderik?

Uste dut belarriak prest behar ditugula ezberdinen iritziak entzun eta aintzat hartzeko, elkarbizitza sustatzeko, etorkizuna denon artean eraiki ahal izateko. Baina, aho biziak ere izan behar dugu, baldin gure hitza eta iritzia entzungo badute. Etorkizunari begira gaudenok, argi adierazi behar diegu iraganera kateatu nahi gaituztenei, nahikoa dela, gurean ez dagoela egiaren bertsio bakar bat. Ez dugu ahaztupuan erori behar, baina are gutxiago, estropezu egin behin eta berriz, harri berean. Izan zaitez ahobizi!

Zorion agurrak



Amaier

Zorionak nere arreba maittia eta 8 muxu erraldoi, Ekain, aitatxo eta amatxoren partetik.



Leire

Zorionak maitia, 4 muxu handi etxeko printzesa txikiarentzat. Asko maite zaitugu bihotza. Irati, aita eta ama.



Maite eta Manuel

Zorionak aita eta ama zuen 44. urteurrenagatik! Muxu bat semearen partez.



Belen

Zorionak printzesa!!!! Muxu haundi bat, zure senarra eta alabaren partetik!!!



Iñaki, Haizea eta Josu

Zorionak hirukote! Urte askotarako, etxekoan partetik!!



Malen

Zorionak zure hamargarren urtebetetzean!! Besarkada bat familiarren partetik!!



Intza

Zorionak printzesa, eta ondo-ondo ospatu zure 7garren urtebetetzea. Muxu erraldoiak familia guztiaren partetik.



Nora

Zorionak maitia!! Udazkeneko lore polit!! Oso ondo ospatu 15 urte handi horiek!



Elaia

Zorionak sorgintxo! Muxu erraldoi bat amatxo aitatxo eta Ametzen partez.



Lucia

Zorionak sorgina!! Sei muxu oso oso potto-lo! Zure gurasoen partetik!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Etxebizitza salgai Buenos Aires aldapan. 4 gela, jangela, sukaldea, 2 komun. Dena kanpora. 60 metro karratuko garaje itxia. Terreno propioa du. 667 232 300 edo 617 085 803.
- Garaje marra bat alokatzen da, Caddie plazan, Atsobakar auzoan, zahar-etxearen parean. Zabala da eta sarbide eroso du. 659 021 945.

Salerosketak

- Motorra salgai 49 zilindrada 6.400 km dauzka eta 15 urte. Daelin Message eta istripurik gabekoa. 450 euro negoziagarriak. Nerea, 637 760 816.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da interna modura asteburuetan eta gauetan lan egiteko. 627 206 110, Alba Lucia.

- Erizain laguntzailea tituluduna eta esperientziarekin masajista lana, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. 622 925 562.
- Aitona-amonak zaintzeko eskaintzen naiz goiz edota gaueko ordutegietan. Tituloa eta erreferentziak. 667 090 692.
- Pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Etxerako zerbitzura, Lasarte-Orian ahal bada. Arreta soziosanitari ziurtagiria eta esperientziaduna. 673 381 470.
- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanetarako. "Externa" eta orduka. 671 763 558

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Xuar Arteaga Salsamendi, azaroaren 2an.
- Ane Linde Zapirain, azaroaren 2an.
- Noa Blanco Monroy, urriaren 27an.
- Gorka Marzo Alaniz, urriaren 24an.
- Hugo Garcia Rosales, urriaren 24an.
- Aroa Odriozola Mendoza, urriaren 20an.
- Alex Piron Fernandez, urriaren 18an.

Heriotzak

- Imanol Zapirain Zulaica, azaroaren 9an, 52 urte zituela.
- Felipe Gutierrez Fonseca, azaroaren 5an, 73 urte zituela.
- Santiago Lainez Gimenez, urriaren 24an, 80 urte zituela.
- Joaquin Manterola Gonzalez, urriaren 21an, 84 urte zituela.
- Joaquina Martin Alonso, urriaren 20an, 94 urte zituela.
- Silvestre Hernandez Sanchez, urriaren 20an, 78 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 11	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 12	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 13	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 14	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 15	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 16	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 17	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549


GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa I
Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea Eizagirre,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noniega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaica
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidier Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

2017ko udal-tasak %1,3 igoko dira

Somoto auzian alkateak Miguel Castells abokatuarekin izandako jarrera gaitzetsi du udalbatzarrak

Datorren urteko ordenantza fiskalen ezaugarrietako bat honakoa da: udal-tasa eta zergen igoera orokorra %1,3koa izango da. Udalbatzarrak asteartean egindako saioan onetsi zituen ordenantzak, bederatzi aldeko bozka (PSE-EE eta EAJ), bost aurkako (EHBildu eta PP) eta bi abstentziorekin (LOAD). Beste hainbat gai ere izan zituzten hizpide.

TXINTXARRI

FUNCAS Aurrezki Kutxen Fundazioak 2017ko KPI indizeari buruz egindako aurreikuspenei jarraiki, udal-tasa eta zergek %1,3ko igoera orokorra izango dute.

Datorren urteko ordenantza fiskalen berrikuntzetako bat da igoera hori, baina ez bakarra. Esaterako, "herriko erdigunetik at" dauden komertzioek %25eko hobaria izango dute aulki, mahai eta erakusleihen okupatze zergan.

Bestalde, familia ugariak %50eko edo %70eko hobaria jasoko dute ibilgailuen gaineko zergan, kide kopuruaren arabera. Ibilgailu elektrikoak dituztenek %70eko hobaria jasoko dute eta hibridoak dituztenek, %40.

Kirol arloari dagokionez, federatutako kirolarientzat abonua berezi bat eratuko da, %30 deskontuarekin: "Entrenamendu ordu eta egunetan

bakarrik erabili ahalko dituzte udalaren kirol instalazioak, egiten duten kirol jarduerarekin lotuak daudenak".

Uraren tasa %1,3 igoko da, estolderiarena %0,2 eta hondakinena, %4. Zineko sarrerak ez dira igoko, eta tutoretzapeko pisuena jaitsi egingo da.

Bozketa eta argudioak

Bozkaren argudioak eman zituzten alderdi batzuek.

PPko Alejandro Saenzek zehaztu zuen oposizioak "oso denbora gutxi" eduki duela ordenantzak lantzeko.

EAJko bozeramaile Estitxu Alkorta nabarmendu zuen "udalaren jardunerako funtsezkoak" direla ordenantza fiskalak, eta horiek onartzea lehenetsi dutela alde bozkatzuz, "hartutako neurri batzuekin ados egon ez arren".

EHBilduko Pablo Barriok hartu zuen hitza ondoren. Aurkako bozka azaltzeko argudioen artean, aipatu zituen



Ordenantza fiskalak onartu ala ez erabakitzeko bozketaren uneetako bat.

koalizio abertzaleak proposatutako emendakinak ez onartzea, kultur etxeko auditorioa erabiltzeagatik herriko elkarteek ordaindu behar dituzten "tasa altuak", eta hondakinaren tasaren %4ko igoera: "Herria erraustegia ordaintzen hasi da".

Jesus Zaballos alkateak PP eta EHBilduri erantzun zien. Saenzi esan zion atzeratu egin dela ordenantzen lanketa, "prozesu parte-hartzaile bat" egiten delako horretarako. EHBilduri aurka bozkatu izana leporatu zion: "Oposizio urteetan abstenitu egin ginen, KPIaren aurreikuspena gober-

nu sozialistek erabili zutelako hainbat urte lehenagotik; zuek ere sistema hori erabili zenuen aurreko legealdian".

Oposizioak 16 emendakin aurkeztu zituen: EHBilduk 8, PPk 5, LOADek 2 eta EAJk 1. Bat bera ere ez zen onartu.

Somoto auzia hizpide

Beste zenbait gai ere jorratu zituen korporazioak. Somoto auzia, esaterako. Mozio bat aurkeztu zuen EHBilduk. Udalbatzarrari eskatu zitzaion alkateak Miguel Castells abokatuarekiko jarrera gaitzetsia eta Gipuzkoako Abokatuen

Elkargoari jakinaraztea, hark hartutako jarrera ontzat hartuz, eta alkateak 2015eko irailaren 3an adierazitako "partzialkeria" gaitzetsiz, "udalbatzarrarentzat iraingarria" dena, besteak beste. Onartu egin zuten.

EAJk eta LOADek egindako mozio horren emendakin gehigarri bat ere onartu zuten. Eskatu zuten bozeramaileen batzarra bi aste biltzea, udalak izendatutako abokatu Carlos Querejetak gaiari buruzko azalpenak emateko, besteak beste.

'Mendebaldeko Saharari buruzko erakunde-adierazpena' aho batez onartu zuten.

Somoto auziari buruzko alkatearen azalpenak

Herriko alkate Jesus Zaballosek EHBilduk iragan astean Somoto auzian jazotako gertakizunei buruz egindako agerraldiari erantzun zion astelehen eguerdian.

Egindakoarekin "kontzientzia lasai" daukala esan zuen: "Oztoporik ez dut jarri nahi izan Somoto prozesuan, ezta Urchueguiaren alde egin nahi izan ere".

Gardentasuna

"Gardentasunaren izenean egin dut dena", azaldu zuen Zaballosek. "Udaleko batzarkideen informazio eskubidea defendatu nahi nuen. Castellsekin bildu nintzenean, 2015eko ekainaren 24an, kereilaren kopia eskatu nion. Udaleko araudiaren arabera, Udalbatzar kide guztiak informazioa izateko eskubidea dute. Egun kide asko berriak dira eta ez dute gaiari buruzko informaziorik".



Jesus Zaballos alkatea, Somoto auziari buruzko azalpenak ematen.

Presiorik ez

Miguel Castells abokatuarekin izandako harremana "bi bilerara eta telefono dei bat" izan zirela azpimarratu zuen alkateak. "Ez nion presiorik egin bere postua uzteko. Are gehiago haren izendapenaren

ostean, nahi izanez gero, bere postutik kendu eta beste abokatu bat izenda nezakeen alkatetzat dekretu bidez, baina ez nuen egin".

"Hori guztiaren berri batzordeetan ematen nien beste alderdiei; Pablo Barriok

guztiaren kopia eskatu zuen. Arazorik ez zegoela adierazi nion nik", aipatu zuen.

Abokatu berria

Alkateak azaldu zuen oposizioak erabaki zuela abokatu berria: "Carlos Querejeta izan

zen aukeratua; nire harridurarako, nik izendapenaren berri eman baino lehen hark bazekien dagoeneko".

"Kopiarik ez daukat"

Alkateak azpimarratu zuen kereilaren kopiarik ez daukala: "Castells esan nion, kopia ematen ez bazidan, Urchueguiaren abokatuari eskatu ahal niola, baina hori ere ez nuen egin; ez dakit kereilak zer dioen".

Astearte arratsaldean korporazioak eztabaidatu zuen mozioa ere izan zuen hizpide: "Deigarria egiten zait urtebetean ez batzorde, ez udalbatzarretan, ez zuzenean gai honi buruzko informazioa ez eskatzea eta mozio horretan, informaziorik ez ematea leporatzea. Nik jakindako guztia esan nien bere garaian. Aurreko legealdian, PSE-EEk hilabetero galdetzen zuen gai honi buruz".



Euskara ari du eta Irten armairutik, 100 da 100 200 dira-eta!

Etxean ikasten dira bizitzako hainbat arau, jokabide eta ohitura, eta etxetik jasotzen da hizkuntza ere. Batzuek euskara izan dute lehen hizkuntza, etxekoa; beste batzuek, berriz, etxetik kanpo ikasi

dute euskara. Etxetik kalera eraman du zenbaitek euskara; kaletik etxera beste hainbatek. Etxeak eta kaleak euskaradunez bete ditugu, baina gure artean gaztelaniaz ari gara maiz.

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da abenduaren 3an, eta Buruntzaldeko herrietan ere ospakizun ugari antolatu izan da egun horren bueltan. Aurten, ordea, ekimen desberdin batek hartu ditu Buruntzaldeko kaleak eta etxeak. Badute guztiek apustu eta desafiotik, indar probatik. Ez dira ezeren erakustaldi ezta sustapen eta atxikimendu ekintza soilak ere; nor bere buruari jarri dizkion erronkak dira, ohiturak aldatzekoak, euskarari eustekoak, izan familian, lagunartean, lantokian edota kirol taldean.

Euskarari Eutsi astebetetz, Hernanin

Hernanin, Eutsi Euskarari ekimena jarri da martxan. Urriaren 15etik azaroaren 26ra bitarteko sei aste horietan, ehundaka dira astebete aukeratu eta euskara hutsez bizitzeko erronkari aurre egiten ari direnak.

Horietako bat da Agustí Serres Rodríguez, Hernanin bizi

den kataluniarra. Bereziki, alabekin euskaraz egin nahi zuelako hasi zen euskara ikasten, eta dagoeneko, kalean ere euskaraz egiten du. Indar proba familiara eraman nahi du orain. Etxeko hizkuntza, osotasunean, euskara izatea da bere buruari jarri dion erronka. Azken bi aste hauetan parte hartzeri animatzen denak badauka aukera, izena emateko: AEKn, Doberan, edo euskaraariduhernanin@gmail.com helbidean.

Astigarragan, '100 da 100, 200 orduz euskaraz'

Antzeko ekimena jarri dute martxan Astigarragan ere, eta parte hartzeri animatu denetako bat da Jorge Rodríguez Gómez. Alabekin euskara hutsean bizitzea lortu duela aitortzen du, eta '100 da 100, 200 orduz euskaraz' ekimenean parte hartuta, kalean ere euskara hutsean bizitzea lortu nahi du orain.

Ekimenari hasiera emateko, TELP tailerra egingo dute egitasmoan izena eman dutenek, eus-

karaz bizitzeko estrategiak lantzeko, eta argazki erraldoi batekin emango diete hasiera 200 ordui.

Lasarteoriarrak, Irten Armairutik!

Era berean, ekimen berezia prestatu dute aurten Lasarte-Orian. Ohiko Euskararen Maratoia, 40 orduz euskaraz aritzekoa, 40 egunetara luzatu dute, Irten Armairutik ekimenarekin.

Maratoia urriaren 22tik 23rako asteburuan egin zuten, eta urriaren 24an hasi eta abenduaren 3ra arte, astez aste ehundaka lasarteoriar ari dira armairutik atera, eta euskaraz bizitzen. Belarriprest edo Ahobizi izan, 40 egunean euskara da nagusi, Lasarte-Orian.

AndoaINDARRA, euskararen alde indarrak batzeko

Dagoeneko ekimen berezia ospatu duena, berriz,



Herri bakoitzean ekimen desberdinak jarri dira martxan, euskarari eusteko.

Andoain da. Herrian euskararen ezagutzak gora egin badu ere, erabileran ez da nabari igoera hori, eta horregatik, AndoaINDARRA euskaraz

eguna antolatu zuten irailean. Herri euskalduna dela erakusteko, denen indarrak batu eta herriko kaleak euskararekin bustitzea izan zuten helburu.



Gure artean euskaraz Eutsi euskarari!

EUSKARA ARI DU HERNANIN

PARTE-HARTZATLEENTZAKO AHOIKUAK

Kanpainaren helburua da bakoitzak bere inguruan gero eta euskara gehiago erabiltzea eta saikera horretan gustura sentitzea. Egoera desberdinekin egingo duzu topo eta horiek kudeatzen ikasi beharko duzu. Hemen aholku batzuk:

- 1. ZER EGIN AURREAN DUZUNA EUSKALDUNA DEN ALA EZ EZ DAKTZUNEAN:**
Euskaraz egin BETI lehen hitza. Ez dakiela esaten badu, galdetu ea ulertzen duen. Ulertzen badu, segi euskaraz, single eta modu errazean. Hari esan, dakiena egiteko euskaraz eta ez dakiena gaztelaniaz adierazteko lasai.
- 2. ZER EGIN AURREAN DUZUNA EZAGUNA ETA EUSKALDUNA DENEAN, BAINA ZUEN ARTEAN GAZTELANIAZ EGITEKO OHITURA DUZUNEAN:**
Garbi adierazi zuk euskaraz egingo diozula eta nahi duzula berak ere euskaraz erantzutea.
- 3. ZER EGIN TALDEAN ZAUDENEAN:**
Denak ulertzeko gai badira, euskaraz egin beti, eta beraiei ere adierazi nahi zenukeela haiek ere euskaraz erantzutea. Bakarren batek ulertzen ez badu, tratua egin harekin. Pazientziatz hartzeko eskatu. Belarriak irekitzeko eta ahal duena ulertzen saiatzeko. Berak gaztelaniaz egin dezala, lasai, baina saiatzeko beste taldekideen jarduna ez baldintzatzen.

EUTSI EUSKARARI!!!

Agustí Serres Rodríguez 'Eutsi euskarari'

"Erdaraz egiten badidate ere, berdin zait; euskaraz jarraitzen dut"

Kataluniatik Euskal Herrira etorri zen Agustí Serres Rodríguez, duela 12 bat urte, eta azken zortziak Hernanin egin ditu. Alaba jaiotzean erabaki zuen euskaraz ikastea. «Bera izan da nire irakaslea!», dio.

Etxekoen laguntza ezinbestekoa izan da Agustírentzat, euskara ikasteko. Orain, bera da etxetik kalera euskara ahoan daramana.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Alaba zaharrena jaio zenean hasi nintzen pentsatzen, hemen geratzea erabakiz gero, euskaraz ikasi behar nuela. Horrela, orain 8 bat urte hasi nintzen ikasten.

Nolakoa izan da ikasketa prozesua?

Hasieran AEKn egin nituen bi urte. Gero, hiruzpalau urtez utzi egin nuen, eta aurrerago, beste urtebetez aritu nintzen. AEKn pila bat ikasi nuen. Oso ondo irakasten dute.

Etxean praktikatzen duzu?

"Etxeko laguntzarik gabe ezin duzu ikasi"

Alabarekin, egunero. Bera izan da nire irakaslea! Etxeko laguntzarik gabe ezin duzu ikasi. AEKn bakarrik egiten baduzu euskaraz, eta gero erabiltzen ez baduzu, ezinezkoa da.

Beraz, etxean hizkuntza ohitura berriak hartu dituzue?

Gero eta gehiago hitz egiten dugu euskaraz. Umeen aurrean, beti. Alaba txikienera, ordea, katalanez ere egiten diot. Katalana, gaztelania eta, batez ere, euskara erabiltzen ditugu. Bikotearekin gaztelaniaz egiten dut. Alaba zaharrenekin euskaraz egiten

dut, garrantzitsua iruditzen zitzaidalako berarekin euskaraz hastea. Baina eskatzen badit, katalanez ere egingo diot. Etorkizunean hirurok katalanez egitea ere asko gustatuko litzaidake.

Etxeko ohiturak atera al dituzu kalera? Ala zailagoa da kalean euskaraz egitea?

Batzuek berehala aldatzen dute hizkuntza, ikusten dutenean ez dakizula oso ondo. Baina, orokorrean, mantentzen dute, komertzioetan, kalean... Baina erdaraz egiten badidate ere, berdin zait; euskaraz jarraitzen dut nik, gustatzen zaidalako.



Agustí Serres kataluniarra da, baina 12 urte inguru daramatza Euskal Herrian.

Zein da hori lortzeko sekretua?

Niretzako erraza da. Ni lotsagabea naiz! Ez dago sekreturik. Kontua da lotsa etxean uztea, eta gauzak errepikatzea. Azkenean, nahi gabe

ateratzen dira gauzak ondo, edozein hizkuntzarekin bezala. Orain, familia osoak euskarari eusteko erronkan hartuko dugu parte, eskolarekin batera. Seguru lortuko dugula!

Jorge Gómez Rodríguez '100 da 100, 200 orduz euskaraz'

"Nire lorpen handiena izan da, alabekin dena euskaraz egitea"

Jorge Gómez Rodríguez familia erdaldunetik dator. Donostian bizi zela, orain 14 bat urte, hasi zen euskara ikasten, «alabekin euskaraz bizitzeko». Azken 10 urteetan, Astigarragan ere euskaraz bizi daitekeela ikusi du.

Familiak lagundu dio Jorge Gómez Rodríguez euskara ikasten, eta orain, etxean lortutako txip aldaketa kalera eramatea du helburu, '100 da 100, 200 orduz euskaraz' ekimenarekin.

Familia erdaldunekoa izanik, nola ikasi duzu euskaraz?

Donostian bizi nintzela, orain 14 bat urte, euskaltegi batean hasi nintzen, zerotik ikasten. Lau urte egin nituen. Gero, tarte batean utzi egin nuen, eta Astigarragara bizitzera etortzean, orain 11 urte edo, AEKn hasi nintzen. Alabak jaio ziren, eta asmoa zen alabekin euskaraz bizitzea. Horrek bultzatu ninduen.

Orduan, etxean euskaraz egiten duzue orain?

Alabekin bai. Nire lorpen han-

"Lehenengo harremanak, erdaraz sortutakoak, aldatu nahi ditut, eta euskaraz egin"

diena izan da, alabekin dena euskaraz egitea. Bikotea ere euskalduna da, eta horrela hasi nintzen ikasten. Berarekin eta bere familiarekin harremanak izateko, euskaraz ikasteko beharra sentitu nuen. Hasieran, bere familiak lagundu zidan.

Etxetik kalera ere, eraman al duzu euskara?

Nire ustez, hemen, Astigarragan, kalean, erraza da euskaraz egitea. Euskaltegian serio hartuta ere, ez da nahikoa. Behar duzuna da, zure burua askatu, txipa aldatu. Horrela erabaki nuen euskaldunekin euskaraz egingo nuela. *Nik*

egiten badiet, haiek ere euskaraz egingo didate, pentsatu nuen. Zaila izan zen salto hori egitea. Oraindik gauza asko gaizki esaten ditut, hanka sartzen dut... Baina horrek ere laguntzen dit, nire burua zuzentzen ikasteko. Gainera, egun, telebista, irratia egunkaria... dauzkagu euskaraz. Benetan ikasi nahi baduzu, erraza da.

Ikasten jarraitzen duzu, hortaz?

Euskara hutsean bizi nahi dut; beraz, oraindik ez dut lortu nahi dudana. Maila polita daukat, baina dena euskaraz



Jorge Gomezen familia erdalduna da, baina alabekin, familian, ikasi du euskaraz.

egiten jarraitzeko, ikasten jarraitu behar dut. Alabek ere gehiago dakite!

**'100 da 100, 200' ekime-
nean hartuko duzu parte.
Zergatik?**

Euskaldunekin euskaraz egi-

ten dut. Baina lehenengo harremanak, erdaraz sortutakoak, aldatu nahi ditut, eta aurrerantzean, euskaraz egin. Uste dut herrian giro polita sortuko dela, eta umeek ere euskaraz entzuten bagaituzte, zerbait aldatuko da.

LABURRAK.-

Buruntzaldea IKTKo gaztetxoak egurrean

Ligan bete-betean murgilduta daude Buruntzaldea IKTKo igerilari alebinak. Joan den asteburuan 2. jardunaldia jokatu zuten Tolosako Usabal kiroldegian. Bi probatan lehiatu ziren gaztetxoak: 200 bizkar eta 100 bularrean. Zenbait igerilari deskalifikatu egin bazituzten ere, emaitza bikainak ere eskuratu zituzten: Unai G. Somovilla bi probatan nagusitu zen, 13 urtekoen arteko errekor berria ezarriz 200 bizkar estiloan. Joane Arzalluz, Aintzane Sarobe eta Ane Artola berriz, bigarren, hirugarren eta seigarren izan ziren 200 bizkar proban eta hirugarren, seigarren eta zazpigarren 100 bularrekoan, hurrenez hurren.



Alebinak bakarrik ez, benjamin kategoriako gaztetxoak ere Usabalgo kiroldegian aritu ziren lehian, KZL/TESTeko 1go jardunaldian. 2006, 2007 eta 2008an jaiotako haurrak aritu ziren, proba desberdinetan. "Urduri egon ziren arren, guztiek jarrera bikaina erakutsi zuten jardunaldi osoan zehar, taldekideak animatuz eta euren erronkei aurre eginez eta ikasitakoa aplikatuz", nabarmentzen du Borja Apeztegia prestatzaileak.

ISU Leihoak bigarren postuan

Gipuzkoako 1go mailako postu gorenetara iritsi da ISU Leihoak taldea. Eneko Molinak zuzendutako taldeak hiru neurketa irabazi ditu jarraian, eta ligako bigarren postuan dago, 15 punturekin. Azkeneko garaipena joan den asteburuan eskuratu zuen Bilkoin Legorretaren aurka, 5-3. Golak Javi Solchagak (2), Aitor Hernandok, Lander Martinek eta Alfonso Molinerok sartu zituzten. Zazpi partida jokatuta, bakar bat ere ez du galdu taldeak. Igande honetan Interren aurka ariko dira, Mons kiroldegian, 12:00etatik aurrera.

Beste emaitzak: Laskorain 9-2 Ostadar Antonio Aroztegia (3. Maila); Cecilia Ostadar 2-2 Euskalduna (Gipuzkoako 1go maila); eta Arantzazuko Ama 6-4 Kafe Bar Buenetxea (Jubenilak).

Gipuzkoako Igo mailako seniorrak, finaletik at

Intza KEk ezin izan du Gipuzkoako 1go mailako final handira sailkatu. Oreretako Eple-rekin neurtu zituzten indarrak Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako bikoteak, eta, gogotik saiatu arren, ezin izan zuten garaipena poltsikoratu. Herritarrek 22-13 galdu zuten. Kategoria horretara aurtan igotzeko da Intza.

Porrota A Coruñan (27-17)

Seniorren Ohorezko B mailan ari den Babyauto Zarautz taldeak ezin izan zuten punturik ekarri bueltan Euskal Herrira. A Coruñan jokatu zuten, CRATen aurka. Zarautzarrek egindako zenbait akats baliatu zituen etxeko taldeak puntuak poltsikoratzeko. 27-17koa izan zen markagailua azkenean. Ander eta Xabier Rekondo, David Vega eta Julen Aristorena herritarrek aritu ziren.

FUTBOLA.-

Lehenengoa, bederatzigarrenean

Ohorezko jubenilak, geldiezin: 0-2 garaitu zuten Hernani

Denboraldiko lehen partidu irabazi zuen Ohorezko erregionalak, **Beti Gazteri 2-1 irabazita, bederatzigarren jardunaldian. Bestalde, Ohorezko jubenilek 0-2 hartu zuten mendean Hernani, eta multzoko liderrak izaten jarraitzen dute, 21 puntu poltsikoratuta.**



Ohorezko erregionalak 2-1 irabazi zuen Beti Gazteren aurka.

IÑIGO GONZALEZ

Ligako bederatzigarren jardunaldi behar izan ditu Ohorezko erregionalak denboraldiko lehen garaipena poltsikoratzeko. Finalez hitz egiten hasteko goiz samar da oraindik, baina joan den igandean jokatutako neurketak tankera hori zeukan Mikel Medina eta Gabi Sanchezek zuzendutako taldearentzat. Bi puntu besterik ez zituzten poltsikoratu ordura arte, eta kontuan hartuta beheko taldeetako batzuek irabazi egin zutela, ezin zuten berriro ere kale egin.

Hobeto zelairatu zen talde urdin-beltza. Lehenengo minutuetan etxeko taldea izan zen nagusi, eta aukera garbienak ere haien izan ziren. Horietako batean, Alex Rodriguezek 1-0koa ezarri zuen markagailuan. 20. minutua zen. Beste 70 falta ziren oraindik helburua betetzeko. Oso luze egin zitzaizkion Ostadarri, golaren ostean Beti Gazte izan baitzen nagusitzen hasi zena. Halere, 1-0 joan ziren atsedenaldira.

Aldageletatik bueltatu eta berehala sartu zuten banakoa nafarrek. Bazirudien beste aste batez hiru puntuak ihes egingo zietela etxekoei, baina Gorka Britiek 72. minutuan sartutako gol ikusgarri bati esker denboraldiko lehen garaipena poltsikoratu zuten. 16. postuan daude orain, bost punturekin.

Jubenilak, geldiezin

Tokitan geratu da Ohorezko jubenil mailako taldeak 1go jardunaldian Dunboa Eguzkiren aurka galdutako neurketa (4-1). Orduz geroztik, Javi Solchaga eta Ibai Etxaideren mutilek zazpi neurketa irabazi dituzte jarraian, eta multzoko liderrak dira, 21 punturekin. Laura dago Dunboa Eguzki, bostera Sporting de Herrera eta seira Añorga.

Iragan asteburuko erronka ez zen erraza urdin-beltzentzat. Hernaniren aurka jokatu zuten, Zubipen. Ez da zela errazena hiru puntuak poltsikoratzeko, baina herritarrek hala egin zuten, 0-2 irabazita, Jon Lopez de la Callek eta Samu Ferreirak

sartutako golei esker. Beste hiru puntu zakura.

Asteburuan aukera polita daukate Solchaga eta Etxaidek zuzendutako jokalariek lider-tzan jarraitzeko, eta emaitzek laguntzen badute, aldea handitzeko. Oiarzun hartuko dute etxean bihar, 15:30etik aurrera, Michelingo zelaian. Orain arte herrian jokatutako neurketa guztiak irabazi ditu taldeak. Golei dagokienez, hamazazpi sartu eta sei jaso ditu.

Jardunaldiko emaitzak

Joan den asteburuko jardunaldiko emaitzak denetarikoak izan ziren: Amara Berri 0-0 Ostadar SKT (Emakumezkoen Lurralde maila); Ostadar SKT 1-1 Billabona (1go erregionala; atseden hartu zuen Texas Lasartearrak); Ostadar SKT 2-0 Astigarragako Mundarro (1go jubenila); Astigarragako Mundarro 1-1 Ostadar SKT (Ohorezko kadetea); Ostadar SKT 1-2 Sporting de Herrera (1go kadetea); Lazkao 1-3 Ostadar SKT (Ohorezko infantila).

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 12

Michelin, 10:30ean

Ostadar SKT - Euskalduna SD
Infantilen Ohorezko maila,
7. jardunaldia.

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE
Kadeteen Ohorezko maila,
9. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Oiartzun KE
Jubenilen Ohorezko maila,
9. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Texas Lasartearra - Asoleus CF
Erregionalen Igo maila,
9. jardunaldia.

Igandea 13

Rezola, Añorga, 19:30ean

Antigua Luberrri - Ostadar SKT
Emakumezko erregionala, 8. jard.

SASKIBALOA

Larunbata 12

Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Zast Orio
Errendimenduko junior neskek, A1 liga,
9. jardunaldia.

Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar SKT - Goierrri
Errendimenduko junior neskek, A2 liga,
5. jardunaldia.

Azken Portu, Irun, 20:00etan

AIB - Ostadar SKT
Seniorren 3. probintziala, Igo jard.

Paco Yoldi, Donostia, 20:00etan

Askatuak - Ostadar SKT
Senior emakumezkoen Igo
probintziala, 6. jardunaldia.

Igandea 13

Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Hondarribia
Errendimenduko kadete neskek, A1
liga, 8. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 12

Anoeta, Donostia, 09:30ean

Bera Bera - Gure Etxea Beltzak
16 urtez azpiko liga.

Anoeta, Donostia, 10:45ean

Bera Bera - Gure Etxea Beltzak
18 urtez azpiko liga.

Asti, Zarautz, 16:00etan

Babyauto Zarautz - Ourense
Seniorren Ohorezko B maila,
8. jardunaldia.

LASTERKETAK

Igandea 13

Behobia, 10:00etan

Herriko lasterkari ugari Behobia-
Donostia proba entzutetsuan ariko
dira. 20 kilometro pasatxokoa da
lasterketaren ibilbidea.

MENDI LASTERKETAK

Igandea 13

Zamudio, 10:00etan

Beñat Los Arcos herritarrek BKT
ligako trail laburreko 7. lasterketa
burutuko du.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa
Ostirala 11

Kirol gunea, 19:45ean

Aita Amari - Kattagorri Insausti

Kirol gunea, 20:45ean

Txoko - Reformas Lagunak

Beko Errota, Lezo, 21:35ean

Jaixki AFT - Cecilia Ostadar

Gipuzkoako Igo maila, 8. jardunaldia.

Larunbata 12

Kirol gunea, 09:30ean

Also - Izkiña

Kirol gunea, 10:30ean

Indaux - Urdaneta HK

Kirol gunea, 11:30ean

Kebab Taberna - Trumoi

Kirol gunea, 12:30ean

Viña del Mar - Ilargi

— Agenda —

Larunbata, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Hauspoen erritmora

XIII. Lasarte-Oriako Akordeoi Jaialdia ospatuko da. Estatuan edo nazioartean ospetsuak diren gonbidatuak izango dira aurtengo jaialdian: Susana Cencillo eta Javi Perez akordeoi eta tronpeta bikotea, CLAK'TET&Cie eta Julien Gonzales akordeoi jolea. Estilo ezberdinetako musikaz gozatu ahalko da. Sarrera, 3 euro. 16 urte bitartekoentzat doakoa izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ostirala, 22:00etan

'Elle' filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen zine forum saioan. Ostean, solasaldia izango da. Jatorrizko bertsoan eskainiko da azpitituluekin. Sarrera 5,50 euro.

Igandea 13, 17:00etan eta 19:30ean
Tim Burton zuzendariaren 'El hogar de Miss Peregrine para niños peculiares' lan berria ikusgai izango da bai haurren zinea sailean, baita helduenean ere. Haurren saioko sarrerak 3,80 euro balio ditu eta helduenak, aldiz, 5,50 euro.

Salatzen dut

OKENDO PLAZA
Ostirala, 20:00etan

Ibon Fernandez Iradiren egoera salatzeko ekitaldi kulturala izango da. Musika, dantza, antzerkia edo bertsolariak izango dira. Sarek antolatutako ekintza.

Topaketa astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ostirala, 19:00etan

Amparo Climenten 'Las lágrimas de África' filma ikusgai izango da. Marokotik Espainiar Estatura igaro nahi duten eta



kanpamentuetan bizi diren etorkinen egoera erakusten du.

ARANTZUKO AMA PARROKIAKO LOKALA
Larunbata 12, 20:30ean

'Tierra de todos' fundazioari laguntzeko dirua jasotzeko afaria egingo da.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Azaroaren 15era, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 19:00etara
'Somos migrantes' argazki erakusketa ikusgai egongo da. Doako sarrera.

Azoka

OKENDO PLAZA

Larunbata, 10:00etatik 14:00etara
Lasarte-Oriako 4. Baserri azoka egingo

da. Hamabi ekoizleren produktuak izango dira erakusgai herritarrek dastatu eta erosteko.

Irakurle-Txokoa

TAKUNENEA

Astearte 15, 18:30ean

'X hil da' lana aztertuko dute Irakurle txokoko kideek Uxue Alberdi txokoko kudeatzaile eta Alaine Agirre idazlearekin batera.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 16, 19:30ean

On Felix Garitano Ama Brigitarren kaperako apaizak 'Creo en Dios...Soy ateo. Aproximación a la realidad actual' hitzaldia eskainiko du.

Ipuin-Kontalaria

HAUR LIBURUTEGIA

Osteguna 17, 18:00etan

Pello Añorgak hainbat ipuin kontatu eta antzeztuko dizkie 4 eta 5 urteko haurrei.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 18, 22:00etan

Txalo produkzioak 'El tipo de la tumba de al lado' antzezlana eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

— Herritarren txokoa —

Eskutitza

Prest gaude!

Segidan irakurriko dituzun hitz hauek premisa bat dute oinarri eta honek ematen dio zentzua artikuluari. Beraz, ondorengo azalpenak ezingo genituzke behar bezala ulertu premisa hau aintzat hartuko ez bagenu: Euskal Herrian hezkuntza gatazka ere ematen da. Izan ere, Euskal Herriari Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemak inposatzen zaizkio eta bere hezkuntza sistema propioa egituratzeko aukera ukatzen zaio. Baina gainera, oinarritzko inposaketa honek euskal herritarren hezkuntza eskubideen urraketa sistematikoa eta orokorra eragiten du. Horregatik, geure hezkuntza sistema antolatzea eskubidea eta beharra da aldi berean. Eskubidea da, munduko gainontzeko nazioek bezalaxe, Euskal Herriak ere bere buruaren jabe izateko eskubidea duelako, baita hezkuntzaren alorrean ere; bere behar ekonomiko, sozial eta kulturaleri erantzun dion hezkuntza sistema antolatzeko eskubidea du. Eta beharra da, herritarren hezkuntza eskubideak bermatzeko, geure hezkuntza diseinu propioa egitea beharrezkoa delako.

Guk ez dugu Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistemen erreproduzioa hutsa egin nahi. Hezkuntza sistema bat antolatu nahi dugu, baina hezkuntza eskubideetan oinarrituta eta ez estatuaren botere soilean oinarrituta. Hau da, hezkuntza arautzeko aukera nahi dugu, hez-

kuntza beste modu batean arautu nahi dugulako. Hezkuntza euskalduna nahi dugu, frantsesek hezkuntza frantsesa eta espainiarrek hezkuntza espainiarra duten bezala. Baina gainera, hezkuntza euskalduna beste modu batean antolatu nahi dugu eta horretan ari gara.

Bide honetan, azken urteotan garatutako oinarrietan aurrera egin nahi du LABek: inposizioak salatzeaz gain, Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistemaren bidean urratsak ematea. Maiz adierazi dugun bezala, desobediencia ez delako ezetza adieraztea soilik, bide propioa ere jorratu behar baita. Horregatik aurreko ikasturtean hasi ginen etorkizuneko euskal estatuk izan behar duen gona berria, gona gorria iruten. Puntadaz puntada, Euskal Herriak behar duen hezkuntza eredu eraikitzen. Eta eredu horretan ebaluazioaren gaia behar bezala kokatu behar delakoan gaude. Kontuan izanik ebaluazioak guztia baldintzatzen duela: pedagogia, metodologia, helburuak, ... Hezkuntza Sistema Propioaren bidean urratsak eman nahi baditugu, gure ustez, ebaluazio sistema guztia, gaur egungoa ere, zalantzan jarri beharko dugu. Ez da nahikoa Heziberriren bitartez edota Nafar Gobernuaren dekretuz LOMCEk inposatutako azterketei planto egitea. Jarrera hau tresna bat da baina ez helburua. Helburua gure Hezkuntza Sistema Propioa eraikitzen hastea da, eta planto egiteak bide horretan palanka izan behar du.

Guk, ikasturte honetan, ebaluazio eredu berri baten eraikuntzaren aldeko hautua egin dugu. Eredu berri horren eraikuntzak hezkuntza komunitate guztiaren parte hartzean oinarritu beharko luke, izan ere, ebaluazioaren afera ikuspegi polidrikotik landu behar dugu. Beharrezkoa dugu bestelako ebaluazio sistema bat non ikaslea ez ezik, irakasle taldea, eskola, familia (hau da, komunitatea) eta finean, sistema guztia ebaluatuko den. Hobekuntzan, ekitean, aukera berdintasunean oinarritu eta bide horretan aurrera egiteko neurri zehatzak eskainiko dituen.

Bizi dugun ziurgabetasun egoera probestu eta ebaluazioaren izaera, funtzio, helburu, eredu, ..., inguruko hausnarketa integrala burutu beharko genuke, ebaluazioaren paradigmaren aldaketa bultzatzeko. HPTk antolaturiko topaketak lehen urratsa dira hausnarketa horrekiko eta noski, LAB bertan egongo da.

Alta, jakin badakigu, bide hau ezin dugula bakarrik egin eta horregatik iruten dinamikaren filosofia malgua eta dinamikoa da. Molde zaharrak apurtu, aurrera begira jarri eta Euskal Herriaren hezkuntza bere herritarren beharretara egokitzea du xede. Egungo zatiketa sozialaren arriskuak gainditu (hiru sare, heziketa eta aukera desberdinak...), hezkuntzaren prekarizazioari aurre egin eta biztanleen herri identitate eta kohesioa lortu nahi ditu. Hezkuntzak berebi-

ziko garrantzia du norbanakoaren eta herri baten garapenean, eta baita jendartea kohesio-natzeko ere (pentsaera guztiak errespetatuz, doktrinamendurik gabe...). Horregatik guztiagatik, hezkuntzak lehentasun soziala izan behar du eta beharrezkoak dituen baliabideak eta inbertsioak jaso behar ditu. Gure herriak behar duen hezkuntzari buruzko eztabaida soziala bultzatu nahi dugu; ezer inposatu gabe, errespetuan oinarrituta ahalik eta eztabaida zabalena sortu nahi dugu.

Erakunde edo hezkuntza eragile bakoitzak izango du bere hezkuntza proiektua, bere bidea, baina akordioaren bertutea eta indarra sorburu desberdinak norabide berean jartzean datza. Egia hori zor, nagusiki, bi bide daude: egungo egoera betikotzen jarraitzen uztea ala herri gisa hausnarketa komuna egin eta Euskal Herriko herritarren beharretara egokitze jarrera aktiboa izatea, prozesu independentista abiatzea, finean. Bestalde jakitun gara hastapeneko urratsetan gaudela eta hauek ondo bideratu eta garatzea ezinbestekoa izango dela bide honek duen potentzialitate osoa aktibatu nahi badugu.

Prest gaude!

Aitziber Perez Blanco
Ruben Iglesias San Sebastian
LAB irakaskuntza

Etorkinak eta errefuxiatuak gogoan

Gaur 'Lágrimas de África' dokumentala izango da ikusgai eta bihar elkartasun afaria

Andatzazpi Pastoral Barrutiak, Gipuzkoako Caritas elkarteak eta Etorkinen pastoraltzak antolatutako Topaketa Astea martxan da. Etorkinen eta errefuxiatuen egoera azalaratu eta herritarrengan hausnarketa eragiteko hainbat ekintza egin dira.

TXINTXARRI

Jose Luis Pinilla Apezpiku-konferentziako Migrazio idazkaritzako zuzendaria izan zen asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxean.

Pinilla etorkinen eta errefuxiatuen fenomenoari buruz mintzo zen, baina ez zien datuei garrantzia askorik eman. Bere ustetan, herritarrek egoera honen aurrean hartu behar duten jarrera azaldu zuen. "Errealitateari buruzko hausnarketa bat egin behar da. Ikusten duguna azertu. Irudi idilikoen edo injustizia egoeren atzean dagoena ikusi behar da eta zergatia galdetu. Ez du balio bat-batean emandako elkartasunak. Elkartasuna ezin da konpulsiboa izan", adierazi zuen.

Lehenik Trumpen garaipenak sortzen zizkion kezkek aipatu zituen, "etorkinen harira, kanpainan egindako adierazpenak kezkarriak dira".

Era berean, etorkinen eta errefuxiatuen egoera "bidegabea" salatuz, mugimendu kolektibo bat bultzatzearen aldeko agertu zen.

Topaketa astearen barruko ekintza honetara hainbat herritar bildu ziren. Adi entzun zituzten Pinillaren azalpenak eta galderak egiteko tarte ere izan zuten.

Bestalde, ekintza isila egin zen atzo arratsaldean Okendo plazan. Donostiako 'Círculo de Silencio-Isilune Zirkulua', Andatzazpi Pastoral Barrutiko kideak eta herritarrek bildu ziren. Boro-bilean jarri eta isiltasuna nagusi, lehenik geldirik eta ostean, mugimenduan Europako etorkinekiko eta errefuxiatuekiko elkartasuna adierazi zuten.

Harresia gurutzatu

Gaur Melillako muga zeharkatu nahi duten etorkinen egoera ezagutuko dute Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi areto hurbiltzen diren herritarrek.

Amparo Climenten 'Las lágrimas de África' dokumental Gurugu eta Bolingoko kanpamentuetako bizitza azalarazten du. Etorkinen esperantzak eta nahiak ezagutzera ematen ditu.

Melillako harresia gainditzeko egiten dituzten saiakeretako



Jose Luis Pinilla Apezpiku-konferentziako Migrazio idazkaritzako zuzendariaren hitzaldiak jakin-mina sortu zuen hainbat herritarrengan.

irudiak ere ikusi ahal dira film honetan.

Bihar, berriz, Cadizen lan egiten duen 'Tierra de todos' fundazioaren aldeko elkartasun afaria izango da Zumaburuko Arantzazuko Ama eliza azpiko lokalean.

Erakusketa

Azkenik, Topaketa asteko antolakuntzako kideek gogorarazten duten moduan, 'Somos migrantes' erakusketa egongo da Antonio Mercero aretoan. Azaroaren 15ean itxiko ditu bere ateak eta honekin batera, amaituko da Topaketa astea.



Ekintza isila egin zuten atzo etorkin eta errefuxiatuei elkartasuna adierazteko.

'Zohardia' ponentzia aztertzekeo parada

Asteazkenean Xirimirira agerturatu ziren herritarrek Sortu alderdiaren birfundazioarako Arnaldo Otegiaren taldeak aurkeztutako 'Zohardia' izeneko ponentziaren berri izateko aukera izan zuten. Otegiaren taldeko Nuria Alzugarai arduratu zen azalpenak emateaz.

Hori baino lehen, Liher Unanuek, herriko Sortuko birfundazio prozesuaren gidarietako batek, azaldu zuen zein fasetan dagoen orain Lasarte-Oria, eta prozesuarekin lotutako datuak eman zituen.

Birfundazioan parte hartzeko akreditatu egin behar zuten herritarrek. Unanuek zehaztu zuenez, 41 lasarteoriatar akreditatu dira: horietatik %34 emakumeak dira eta %66 gizonak. Eta herrikoak diren sei euskal presoetatik, bost daude akreditatuta; arduradun propioa daukate denek.

Prozesua barne-hauteskunde fasean dago orain, hila-

ren 26ra arte. Kideek bozkatu beharko dute ponentziari bai ala ez, ala bozka txuria ematen dioten.

Bestalde, Zohardia ponentziari dagokionez, datorrean asteazkenean, hilak 16, eztabaida-saioa egingo dute parte hartzen ari diren kideek, Xirimiri elkartearen bertan.

Militanteen ekarpenak

Sortu alderdiak birfundazio prozesua zabaldu zuen eta epe bat eman zuen ponentzia ezberdinak aurkezteko. Edozein militante edo militante talderi eskaini nahi izan zitzaion aukera ponentziak eta zuzendaritza taldea aurkezteko.

Aurreko astean jakitera eman zenez, aurkeztutako ponentzia bakarra Arnaldo Otegi buru duen 'Zohardia' izenekoa izan zen. Dokumentu hori izango da alderdiak urtarrilaren 21ean egingo duen kongresura era-



Nuria Alzugarai 'Zohardia' ponentzia aurkeztu zuen Xirimiri elkartearen, asteazken arratsaldean.

mango duena, eztabaidatu eta onartzeko.

Dokumentu horrek hiru atal ditu: batetik, alderdiaren oinarri ideologikoak jasotzen dituena; bestetik ildo politikoaz jarduten duena; eta azkenik, ezker abertzaleko

alderdiak izan beharko lukeen antolakuntza eremuan sakontzen duena. Hiru ildo estrategikoez mintzatu zen Alzugarai, luze eta zabal.

Bukatu baino lehen, Xirimirira joandako herritarrek euren ekarpenak egin eta

zalantzak partekatu zituzten hizlariarekin.

Aurkezpenean egon ez eta dokumentua eskuratu gura duten herritarrek aukera dute hori egiteko, *sortu.eus* web orrialdean bertan, aurrez erregistratuta.